

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2020ko dirulaguntzetarako deialdia, gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki erakundeentzako

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2016ko apirilaren 15ean, onetsi egin zituen Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2016ko maiatzaren 4ko ALHAO, 50. zenbakia).

Gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki erakundeentzako deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2020ko ekainaren 8ko bileran onartutakoa, aipatutako oinarri arautzaile orokorreari eta ondoko ataletan ezarritakoari lotuko zaie.

1. Deialdiaren xedea

Gazteentzat eta gazteekin egitekoak diren proiektuak finantzatzea, toki erakundeei aukera ematen diena herrietako gazteen beharrezanean erantzuteko. Jarrera arlo hauekin zerikusia duten proiektuak lagunduko dira diruz:

- Aisialdi hezigarria.
- Animazio sozio-kulturala.
- Hezkuntza ez-formala.
- Gazteentzako informazioa.

Proiektu hauek elkartasuna, tolerantzia eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu behar dituzte.

Dirulaguntzaren ondorioetarako, gazteentzako hartuko dira 7 eta 30 urte bitarteko pertsonak.

2. Erakunde onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Konderriko udalak –Vitoria-Gasteizkoa izan ezik-, kuadrillak eta kontzejak.

Kanpoan geratuko dira Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako hirugarren klausulan aipatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak.

3. Diruz lagundu daitezkeen proiektu eta gastuak

3.1 Diruz lagundu daitezkeen proiektuak:

- Gazteentzako ekipamenduak sustatzen edo indartzen dituztenak: gazte klubak, gaztelekuak, gaztegunak, gazteentzako informazio zerbitzuak.
- Hezkuntza ez-formaleko programak eta denbora libreko hezkuntza programak gauzatzen dituztenak.
- Gazteek herriko gizarte eta kultura bizitzan parte hartzea eta konpromisoa hartzea sustatzen dutenak.

Antolatzen diren jarduerak bultzatu beharko dute sexua ez izatea haiei atxikitzeko edo haientan parte hartzeko faktorea.

Lehenbiziko aldiz gauzatzen diren programa edo jarduerak edo berritzaileak edo berriak direnak.

Jarduerak jarraitasunez gauzatu beharko dira, urte osoan zehar. Hala, bada, urteko programazioa aurkeztuko da, bat etorritik jarduera proiektu orokorrekiko, eta, gainera, astean jarduera bat izan beharko du gutxienez, sei hilabetean zehar, gutxienez.

3.2 Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira diruz laguntzekoak diren proiektua eta jarduerak antolatzeak eta garatzeak dakartzanak.

2. Hara zer lagunduko den diruz: parte hartzaileen aseguru gastuak, proiektua gauzatzeko dedikazio eskusiboa eta beharrezkoa izango duten langileen kontratazioa, garraioa, jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den material suntsikorra.

Kontratututako langileen gastuak diruz lagundu ahal izango dira proiektua garatzeko beharrezko lana egiten duten pertsonak baldin badira, ez bestela.

3.3. Dirulaguntza eskuratzeari begira, dirulaguntza ematen duen ebazpenean kontrakoa adierazi ezean, ez dira diruz lagunduko gastu hauek:

1. 7 urte baino gutxiagoko umeei parte hartzen duten ludotekak edo antzeko ezaugarrietako zerbitzuak.

2. Jarduerak garatzeko baliatzen diren lokaletako garbiketa, elektrizitate, telefono, ur, mantentze eta ekipamenduen ondoriozko gastuak.

3. Ikastetxeetan egindako eskolaz kanpoko jardueren gastuak.

4. Eskumena duen sailak diruz lagundutako kaleko hezkuntzako edo esku-hartze sozialeko programak.

3.4. Jarduera guztiak osasun agintariak COVID-19 pandemiaren ondorioz unean-unean ezarritako baldintzetara egokitu behar dira.

4. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztuko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoetan, Vitoria-Gasteizen, edo hitzartutako udaletako erregistro orokorretan, horretarako berariaz diseinaturiko ereduetan, aipatutako erakundearen bulegoetan eta web orrian <https://gazteria.araba.eus> eskuragarri egongo direnak.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Administrazio agiriak:

1. Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, lehenago aurkeztu ez badu.

2. Eskaera egiteko baimena eta gastua partez finantzatzea onartzen dituen osoko bilkuraren edo batzordearen erabakiaren edo alkatetzaren dekretuaren ziurtagiria.

b) Berariazko agiriak:

1. Programaren proiektua, azalpen gisa, eta bereizirik aipatuz honako hauek:

– Helburuak.

– Proiektua, gauzatzekoak diren jarduerak eta jardueren egutegia.

– Parte hartzaile kopurua, sexuaren eta adinaren arabera xehaturik.

– Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua, berariaz adieraziz zeintzuk diren lehentasunak eta zer baliabide material eta giza baliabide dauzkaten, eta, orobat, zehaztea finantzaketa iturriak eta interesekotzat jotzen den beste edozein informazio.

2. Programa bakoitzeko begirale baten titulazioa.

Ezingo da proiektu bat baino gehiago aurkeztu.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Aurrekontu baliabideak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Helburu horretara bideratu den zuzkidura ehun mila euroko (100.000,00) dotazioarekin, Gazteriaren Foru Erakundearen 2020ko gastu aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.6.2.90.01 partidari egotzi zaio.

Zenbateko gehigarria erantsi ahalko zaio deialdiari, betiere hamar mila euro baino gutxiago, baldin eta aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebazpena emateko.

Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoa zehazteko, balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) irizpidea. Egindako proiektuaren egonkortasuna eta iraupena (gehienez ere, 30 puntu).

| | |
|-----------------|----------|
| - 4 egun astean | 30 puntu |
| - 3 egun astean | 20 puntu |
| - 2 egun astean | 10 puntu |
| - 1 egun astean | 5 puntu |

b) irizpidea. Udalaren ekarpenaren ehuneko proiektua gauzatzeko (gehienez ere, 10 puntu).

| | |
|-----------------------------|----------|
| - ehuneko 50 baino gutxiago | 0 puntu |
| - ehuneko 50 | 1 puntu |
| - ehuneko 51tik 55era | 5 puntu |
| - ehuneko 56tik 60ra | 10 puntu |

Dirulaguntzetarako, diru sarreratzat hartuko dira erakunde eskatzaileak egin duen ekarpena, kuotak eta balizko dirulaguntzak.

c) irizpidea. Proiektuen garrantzia eta pisua, alderdi ekonomikoari dagokionez (gehienez ere, 20 puntu).

| | |
|---|----------|
| - Programen gastua 15.000 euro baino gehiago denean | 5 puntu |
| - Programen gastua 20.000 euro baino gehiago denean | 10 puntu |
| - Programen gastua 30.000 euro baino gehiago denean | 15 puntu |
| - Programen gastua 40.000 euro baino gehiago denean | 20 puntu |

d) irizpidea. Lehenbiziko aldiz gauzatzen diren proiektu berriak edo proiektu berritzaileak edo berrikuntza dakartenak (gehienez ere 15 puntu).

- Proiektu edo programa berriak (inoiz ere burutu ez direnak) 7 puntu

| | |
|--------------------------|---------|
| - Proiektu berritzaileak | 8 puntu |
|--------------------------|---------|

e) irizpidea. Jardueraren batean genero ikuspegia txertatuta daukaten proiektuak: 5 puntu.

| | |
|-------------------------------------|---------|
| - Gauzatuko diren jarduera zehatzak | 5 puntu |
|-------------------------------------|---------|

Puntuazioaren arabera banaketa sistema bat ezarriko da, eta horretarako, aurrekontu zuzkidura zatitu egingo da puntuazio baremoa aplikatzearen bidez erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntu guztien artean, eta horrek emango digu puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta ez badu gainditzen jardueraren gastua.

Aurrekontuko zuzkidura agortzeko behar den beste banaketa egingo da.

– Gazteriaren Foru Erakundeak proiektu horietarako emango duen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da izango, inolaz ere, diruz lagundu daitezkeen gastuen kostuaren ehuneko 50 baino gehiago.

– Ez dute dirulaguntzarik jasoko, behin baloratu ondoren, 200 eurora iristen ez diren eskaerak.

6. Balorazio eta ebazpen batzordea

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eratuko dute:

- Idazkaritza Teknikoko burua edo hark eskuordetutako pertsona.
- Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Gazteriako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, Balorazio Batzordeak dirulaguntza emateko proposamen txostena egingo du.

Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egiturari eta Funtzionamenduari buruzko Arautegia aldatzen duen ekainaren 8ko Diputatuaren Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du bost hilabeteko gehieneko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Dirulaguntza eman ala ukatu den jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei eskaeran adierazitako helbidean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 42. artikuluan xedatzen den eran.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza jarduera egin eta gero ordainduko da, 8. puntuan adierazitako agiriak aurkeztu ondoren.

8. Justifikazioa

Erakunde onuradunak azalpen memoria bat aurkeztu beharko du, 2020ko abenduaren 18ra arte, egun hori barne. Memoria horrek hauek jasoko ditu:

– Diruz lagundutako proiektuaren garapena zehatz azaltzen duen memoria, non, besteak beste, egindako jarduerak, partaide kopurua (sexuaren eta adinaren arabera banatuak), datak eta proiektuaren balorazioa jasoko diren. Halaber, jardueretan genero ikuspegia nola txertatu den azalduko da.

Diruz lagundutako jardueren berri emateko erabili diren material guztiak (edozein euskarri) erantsiko dira.

– Jardueraren begirale gisa kontratatutako pertsona batek, gutxienez, haur eta gazteen aisialdiko jardueren begirale titulua edo baliokidea izan beharko du.

– Gastuaren ordainagiriak eta haien zerrenda, erakunde hornitzailea, data eta zenbatekoa adierazten dituena. Jarduera egin den aldikoak izan behar dute.

- Gastuen eta diru sarreraren azken balantzea.
- Aurkeztutako fakturei dagozkien ordainagiriaren fotokopia edo ordainagiriaren zerrenda, toki erakundeko idazkariak sinatua, berariaz adieraziz kontabilitate agiriaren zenbakia eta data, hornitzailea, faktura zenbakia eta zenbatekoa.
- Dirulaguntza emateko ebazpenak zehazten duen beste edozein agiri.
- Gastu frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, edo, hala balegokio, kopia konpultsatuak, betiere egindako gastuaren zenbateko osoaren zenbatekoa daramatela.

Baldin eta erakundeak eskatzen baditu aurkeztutako ordainagiriaren edo gastu frogagiriaren jatorrizkoak, zigilua ezarriko zaie marka gisa, adieraziz zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta frogagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo partez egozten ote zaien. Azken kasu horretan, gainera, adierazi beharko da dirulaguntzak zer zenbatekori eragin dion zehazki.

– Halaber, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZaren konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak eta/edo ordainagiriak (PFEZa edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).

– Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan). Lehenago adierazitako zenbateko hori kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, batu egingo dira hirugarren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

– Langile gastuen justifikazioa:

Soldatapeko langileak eta/edo profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiriak nahitaez aurkeztu behar dira.

Soldatapeko langileen lan egoera zehaztu beharko da, honako hauek zehazten dituen taula baten bidez: langileak, arduraldia, hilabetea, soldata likidoa, PFEZaren atxikipena, langileek Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, enpresak Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, eta guztirakoa.

Halaber, soldatapeko langileen gastuei dagokienez, betiere, erakundeak kontratatutako jatorrizko nominak –edo fotokopia konpultsatuak– aurkeztu beharko dira, haiek proiektuari eratzikita dauden aldikoak. Soldatak ordaindu izanaren frogagiritzat, hauetako edozein onartuko da:

- Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.
- Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, adierazten duena langileak zenbatekoa kobratu duela, dagokion hilabeteagatik.
- Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena, eta horrekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazte duena.

Aurretik esandakoaz gainera, nahitaez aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzaren TC1 edo kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta TC2 edo langileen zerrenda ereduak, eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten agiriak.

Behin aurkeztutako dokumentazioa berrikusi ondoren, eta haren arabera, ordaindu egingo da esleitutako dirulaguntza.

9. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzailea
PABLO DE ORAÁ OLEAGA